

Elkartasunez berrerabiltzea



Rios de Bizkaia: Calidad ecológica



Garizuma, Aste Santua eta Pazkoan pazko opila



II Plan de Gestión de Residuos Urbanos



Txangoa: Zalla-La Mella

# Bizkaia maitea

Negua 2006 Invierno

www.bizkaia.net



## Santoña y Noja
# Paraíso de aves en la costa cantábrica

Gaurkoa/Actual

Entrevista a Berohi S. Coop.
**Ropa de segunda mano, un mercado en alza**

GARBIDEIAK

IX EDICIÓN
«NUESTRO CONCURSO»
(FOTOGRAFÍA, PINTURA, RELATOS BREVES Y ARTE DIGITAL)

ingurumenari buruzko aldizkaria

revista de medio ambiente

BFA DFB

**ARGITARATZAILEA / EDITA:**
Bizkaiko Foru Aldundia.
Ingurumen Saila
Diputación Foral de Bizkaia.
Departamento de Medio Ambiente.
Bizkaia Maitea.
Alda. de Rekalde, 30. 48009 Bilbao.
Tel. 94 406 77 00.
Apdo. de Correos 53. 48080 Bilbao

**KOORDINAZIOA / COORDINACIÓN:**
Joseba García Elizburu.

**ARGITARATZAILE ORDEZKOA / EDITOR DELEGADO:**
Iniciativas Ambientales.

**ZUZENDARITZA ETA ERREALIZAZIOA**
**DIRECCIÓN Y REALIZACIÓN:**
Iniciativas Ambientales.

**ERREDAKZIO-ARDURADUNAK**
**RESPONSABLES DE REDACCIÓN:**
Eva Benito.- Ainhoa Galán.- Iosu Ibarrondo.

**ILUSTRAZIOAK / ILUSTRACIONES:**
Juan Sánchez.

**ARGAZKIAK / FOTOGRAFÍAS:**
Iniciativas Ambientales.- Alberto Hurtado.-
DFB/BFA.- GV/EJ.- Berohi S. Coop.-
Jon Urrutxurtu.
Foto portada: Alberto Hurtado.

**EUSKARA AHOLKULARIA**
**ASESORÍA DE EUSKERA:**
Jose Morales.

**AURREINPRIMATZEA ETA FOTOMEKANIKA**
**PREIMPRESIÓN Y FOTOMECÁNICA:**
Rali, S.A.

**INPRIMATEGIA / IMPRENTA:**
Estudios Gráficos ZURE.

**LEGE-GORDAILUA / DEPÓSITO LEGAL:**
BI-733-96.

**I.S.S.N.:**
1136-4246.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ingurumen Saila
Departamento de Medio Ambiente

***Aldizkarian azaldutako iritziak artikuluen egileenak dira, eta ez dituzte halabeharrez editorearen ideiak adierazten.***

**Las opiniones expuestas en la revista, son de los autores de los artículos y no expresan forzosamente las ideas de quien la edita.**

# Garapen eta Iraunkortasuna Elkarlana

Hondakinen arloa, hiru dira doktrina ekologikoaren oinarrizko arauak (murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea), eta garapen iraunkorrerako funtsezkoak diren zeregin horietan esku hartzen duten eragileak ere hiru dira: erakundeak, enpresak eta herritarrak.

Herritarrek neurriz, zentzuz eta begirunez erabili behar dute kontsumitzeko eskubidea. Ez da lan erraza, baina, ahalegin txiki bat eginez eta ardura apur batekin jokatuz, gure harri koskorra ekar dezakegu denok. Etxeko hondakinak bereizteaz gain, arduraz kontsumitzeko neurriak hartu eta egoera onean dauden gauzak berrerabiltzen lagundu ahal dugu. Gehiago erabiliko ez ditugula erabakitzen dugunean, leku egokian utz ditzakegu, zaramara bota beharrean.

Enpresek, berriz, ulertu egin behar dute etekinak ez direla ekonomia-faktoreetan soilik neurtzen, eta gaurko aberastasuna, baliabideak xahutuz eta ingurumena kutsatuz lortzen bada, biharko osasunarekin eta diruarekin ordaintzen dela. Gainera, ingurumena gehiago errespetatzen duten teknologia eta tresnerietan egiten diren inbertsioak aberastasun-iturri handiak dira. Horregatik, gero eta enpresa gehiago aritzen dira sektore horrekin zerikusia duten jardueretan.

Azkenik, erakundeok gizartearen beharrak bete behar ditugu, garapenaren eta ingurumenarekiko begirunearen arteko oreka zainduz. Hala, ingurumena errespetatzen duten ekimenak eta estrategiak sustatu behar ditugu, gure ingurunea bizitzeko leku osasungarriagoa izan dadin hala gaur egun bertan bizi direnentzat nola etorkizuneko belaunaldientzat.

Hain zuzen ere, garai berriari aurre egiteko asmoz, Bizkaiko Hiri Hondakinen II Plan Integrala (2005-2016) onartu dugu. Plan horrek datozen hamabi urteetan birziklatzearen arloan gure jardueraren ildoak zein izango diren zehazten du, helburu handinahi batekin: hondakinen balio material eta energetikoa ahal beste aprobetxatzea, teknologiarik aurreratuenak erabiliz eta lehen mailako hondakin bat ere ez botatzea ahalbidetuko duen kudeaketa integral baten bidez. Hala, tratatu ondoren ezin balia daitezkeen hondakinak soilik jasoko dira hondakindegietan.

Hondakin Plan berriaren emaitzetako bat Rezikleta eta Emaus kooperatibek Bizkaiko Foru Aldundiarekin duela gutxi sinatu duten hitzarmena da. Hitzarmen horren ondorioz, Berziklatu erakundea eratu da, Bizkaian sortzen diren hondakin handien kudeaketa integrala egiteko. Sektore publikoak eta hirugarren sektoreko irabazi-asmorik gabeko erakundeek parte hartzen duten lehen sozietate mistoa da Europa osoan. Espero dugu ekimen aitzindari horrek horrelako beste askori bidea irekitzea hemen eta beste eskualde batzuetan.

# Desarrollo y sostenibilidad Una labor conjunta

Si en materia de residuos son tres las normas básicas de la doctrina ecológica (reducir, reutilizar y reciclar), tres son también los agentes implicados en estas tareas clave para el desarrollo sostenible: las instituciones, las empresas y la ciudadanía.

A la ciudadanía le corresponde ejercer con moderación, conocimiento y respeto su derecho al consumo. No es tarea sencilla, pero hay ciertos pasos que sí podemos poner en práctica con algo de esfuerzo y responsabilidad. Además de separar los residuos domésticos, podemos aportar nuestro granito de arena adoptando ciertos criterios de consumo responsable y contribuyendo a la reutilización de los artículos en buen estado de uso, entregándolos en el lugar apropiado en vez de tirarlos, cuando decidimos que no vamos a hacer más uso de ellos.

Es labor de las empresas entender que los beneficios no se miden sólo en factores económicos y que la riqueza de hoy, cuando se obtiene a costa de consumir recursos y contaminar, se paga con la salud y el dinero de mañana. Las inversiones en tecnología y equipamientos más respetuosos con el medio son, además, una importante fuente de riqueza, por lo que cada vez es mayor el número de entidades que tienen su sustento en actividades relacionadas con este sector.

A las instituciones, por su parte, nos corresponde hacer frente a las necesidades sociales, velando por el equilibrio entre desarrollo y respeto al medio ambiente, para promover y promocionar aquellas iniciativas y estrategias que colaboran en hacer de nuestro entorno un lugar más saludable, tanto para quienes ahora lo habitan, como para generaciones venideras.

Precisamente con la intención de hacer frente a los nuevos tiempos, ha sido aprobado el II Plan Integral de Residuos Urbanos de Bizkaia (2005-2016), que marca las líneas de actuación en materia de reciclaje de los próximos doce años, con un ambicioso objetivo: aprovechar al máximo el valor material y energético de los residuos mediante una gestión integral que apuesta por el "vertido cero" –dando cabida en los vertederos únicamente a los residuos que, previamente tratados, no pueden ser aprovechados–, y la utilización de tecnologías más vanguardistas.

Fruto de este nuevo Plan de Residuos es el acuerdo adoptado recientemente entre las cooperativas Rezikleta y Emaús con la Diputación Foral de Bizkaia, que ha culminado con la puesta en marcha de Berziklatu, la primera sociedad mixta de Europa participada por el sector público y el denominado tercer sector, que son las organizaciones sin ánimo de lucro, para la gestión integral de los residuos voluminosos generados en Bizkaia. Una iniciativa pionera que esperamos abra paso a otras muchas similares en esta y otras regiones.




El Diputado de Medio Ambiente junto a representantes de Rezikleta y Emaús.